

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

1-Banaketa

Gure produktua erabiltzaileengana heltzeko, denda on line-ak erabiliko doguz. Ikastetxeak denda on line batean eukiko dau aplikazioa eskugarri (App Store, Play Store). Era berean, ikasleek behar eukiko dabe eskugarri. Bai ikastetxeek zein ikasle bakoitzak bere erabiltzaile-izena eta pasahitza eukiko dau.

2-Komunikazioa

- **Bezeroekiko kontaktua:** Bezeroek, e-mailen bidez, zoom eta meet moduzkoen aplikazioen bidez eta euren ikastetxetara joaten jakin egingo dabe guri buruz.
- **Sare sozialak:** Sare sozialetan (Instagram eta Twitter) be eskegiko diran informazio estekeen bitartez jakingo dabe aplikazioari buruzko aldaketa edo hobekuntza (gaintetik azalduta). Instagram-en, historioak eskegiko doguz eskola jazarpena eta osasun mentalari buruzko albistakaz, aplikazioaren hobekuntzak azalduko doguz, app-a nolakoa dan erakutsi, egunean jazotzen diran barriak eskegi, gure proiektua zertan datzan azaldu... Twitterren bitartez antzekoa egingo dogu baina, kasu honetan, dana tweeten bitartez. Holan, bezeroak sare sozialen bidez gaintetik ikusiko dabez geroago ikastetxeei presentzialki azalduko jakezan aldaketa eta hobekuntzei buruz.
- **Publizitatea:** Sare sozialetan egingo da, non ahalik eta ikastetxe gehien erakartzeko asmoz, gure aplikazioari buruz berba egingo dogun goiko puntuan azalduko ekintzen bidez. Honetaz gan, irakaskuntza inguruko aldizkarietan be aplikazioari buruzko informazioa emongo dogu.
- **Bezeroekiko harremana:** Zuzena izatea gura dogu, eta, horretarako, hareekaz ahalik eta azkarren eta zuzenean komuniketako aukera emongo deuskuen aplikazioak erabiliko doguz. Aldi berean, bezeroek be gugaz modu errazean berba egin ahal izatea gura dogu, eta, horregaitik, gugaz telefonoz, posta elektronikoz edo aurrez aurre komunikatu ahal izango dira.